

KOLDO IZAGIRREK 'AGIRRE ZAHARRAREN KARTZELALDI BERRIAK' NOBELA PLAZARATU DU ELKARLANEANEKIN

# «Metxak memoria pertsonala oso txarra dauka; memoria historikoa, aberatsegia»

■ Joseba Jaka I. Literatur Beka sariduna, beka labealdi horren azken emaitza da idazle pasaitarraren eleberria


■ Errealismoa eta fantasia erabiliz, baina errealismo magikoa ondorio izan gabe, ironiaz jantzitako fartsa sasi-burleskoa idatzi du

■ Nikola Agirre *Metxa* protagonista espetxez espetxe azaldu du, sakabanaturiko presoan bisitari boluntario bihurturik

Amagoia Iban / Donostia

DUELA zortzi urte eman zen argitara Koldo Izagirreraren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* liburua. Hura izan zen agirretar erre-txin, gozo, egoskor, maitagarri eta gezurti horren ibileren berri izan genuen lehen aldia. Orain, *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* plazaratu du pasaitarrak, Elkarlanean etxearekin. Hala ere, egileak berak dioenez, «hau ez da aurreko liburua jarraipena, ez da hala irakurri behar».

Esaldi argigarri batez definitzen du pasaitarrak *Metxa*: «Memoria pertsonala oso txarra dauka; memoria historikoa, aberatsegia». Eta *Metxak* badu zer gogoratu. Duesoko espetxea, esate baterako, euskaldun askorentzako leku mitiko bilakatu zena Espainiako Gerra Zibila amaitu ostean, Izagirrek berak atzo zioen bezala.



GARI GARAIALDE

Koldo Izagirrek literatura eta espetxearen arteko loturak izan zituen mintzagai atzo bere liburu berriaren aurkezpenean.

## Sakabanaketa eta literatura

Espetxea eta literatura mintzagai izaki, ETako presoan sakabanaketak ekarri duen ondorioetako bat literarioa izan ote den, bere azken liburu hau idazterakoan konturatu dela gaineratu zuen Izagirrek: «Alegia, ez daukagu leku mitiko bat. Momentu batean, Herrera de la Mancha ari zen bihurtzen leku mitiko, Dueso lehenago izan zen bezala, baina ez zuen iraun ahal izan. Orduan, ezin nuen lan hau leku batean kokatu». Hasieran asmo hori omen zuen, gainera: beti kartzelaren bertan gertatzea protagonistaren pasadizoak. Baina leku mitikorik ez izatean, pertsonaia mitiko bat hartu behar. «Agirre delako bat». Horrela, *Metxa* bihurtu zuen protagono-

■ ■ ■ «Gizarte honen ale onenak espetxean daudela uste du *Metxak*. Berarentzat, askatasuna kartzelan dago»

nista lekua baino gehiago, eta bera ere sakabanatu egin du batetik bestera, «eta sakabanaketa bera baliabide literario gisa erabiliz sakabanaketa boluntario batean jarri dut. Bere ustez borrokakideak dituen gazte horiek bisitatu egiten ditu bere borondatez eta berak daukan ahalmen harrigarri bati esker».

Errealismoa bada beraz *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak* liburuan. Eta fantasia ere bai. Baina horren ondorioa ez da errealismo magikoa: «Oso urrun nago horretatik. Gainera, horrek ez ninduke eramango nik pretenditzen nuen ironia eta fartsa sasi-burleskoaren bidetik».

Errealismoa eta fantasia ia fartsara eramate horrek hizkuntzaren tratamendu jakin batera eraman zuen Izagirre,

## Beken garrantzia ere mintzagai

■ JOSEBA JAKA I. LITERATUR BEKEN labealdiko azken emaitza da Koldo Izagirreraren *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*. Atzokoa, pasaitarrak beka horietako epaimahaikide Joxe Agustín Arrieta, Joxerra Garzia, Joan Mari Irigoien, Paulo Iztueta eta Anjel Lertxundiri eskerrak eman zizkien. «Eskerrak, aukera hau eman di-

datelako. Artistak dira. Idazleak dira. Kolegak ditugu. Beraz, izugarrizko sakrifizio bat egiten dute hor egonda aukera bat eginez eta euren buruak beketatik baztertuz».

Bekek kritikariek eta epaileek ez duten eskuzabaltasun bat erakusten dutela aineratu zuen. «Eta bista bat ere bai, saktasun bat. Lau foliotatik zeozer ate-

ra litekeen edo ez ikusteko gai dira, kritikariak eta sari emaileak ez bezala. Ez hori bakarrik. Fidatzeko gai ere badira, eta fidatu egiten dira idazleak aurkeztu zirriborroaz».

Andoni Egaña ere aipatu zuen idazleak: «Haren liburua irakurria dut, eta lan bikain horrek indarra eman dit».

Beste alde batetik, bekek idazleak libe-

ratzea dakartela nabarmendu zuen, «Beka hauei esker idazleak denbora eros dezake; beraz, lan sakonetan murgil liteke. Andonik lortu du. Nik, ez dakit. Baina behintzat denbora ematen dion lan sakonetan murgiltzeko. Horrela bakarrik egingo du aurrera gure literaturak. Horrela bakarrik lortuko da aniztasuna».

bi planotan. Batetik, argot bat sortu beharra zuen: «Kartzelako argota ez zitzaidan interesatzen. Gaur egun oro har presoak sakabanatuta egonda —eta hori sakabanaketaren beste ondorio bat da—, ez dagoenez multzo bat, ezin da argot propio bat sor-

tu, multzorik ez dagoelako. Orduan, beti maileguz funtzionatzen da». Mirandek behin erromintxela —ijito euskaldunen argota— erabili zuen bezala, berak ere egin zezakeela pentsatu zuen: «60 bat termino hartu ditut erromintxetatik kartzelako argot

hori osatzeko. Ijitoek bizitza erdia kartzelan ematen dutenez, omenaldi ere bada neurri apal batean».

Bestetik, *Metxa* subertsibo samarra denez, «eta anti-autoritarioa», ezin omen zuen euskara akademiko eta normalizatu bat erabiltzen jarri.